

Euskal AEko ondasunen esportazioek % 27,8 egin dute gora 2022ko abuztuan

2022ko lehen zortzi hiletan metatutako kanpo-saldoak 2.000 milioi eurotik gorako superabita izan du

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.170 milioi euro), 2022ko abuztuan, aurreko urteko hil beraren aldean, % 27,8ko igoera izan dute, produktu energetikoen % 61,0eko eta ez-energetikoen % 24,6ko igoeraren ondorioz, Eustaten datuen arabera.

Inportazioen kasuan (2.238 milioi), % 36,0ko igoera izan da. Inportazio ez-energetikoei % 31,7 egin dute gora, eta energetikoei, % 46,7.

2022ko abuztuan, merkataritza-saldo negatiboa izan da (–67,6 milioi) eta estaldura-tasa % 97,0koa.

Euskal AEko hiru lurralde historikoei hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte, eta igoera-ehunekoa % 31,0koa izan da Bizkaian, % 30,8koa Gipuzkoan eta % 17,0koa Araban. Bizkaiko esportazio ez-energetikoei % 23,2 egin dute gora; Arabakoek, % 16,9, eta Gipuzkoakoek, % 31,0. Esportazio energetikoei, Bizkaiaren kasuan, % 62,1 egin dute gora.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Abuztua 2022

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Abuztua			Abuztua		
	2021	2022	Gehikuntza (%)	2021	2022	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	1.697.775	2.170.436	27,8	1.645.059	2.238.077	36,0
ENERGIAZKO GAIAK	152.989	246.367	61,0	473.295	694.403	46,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	1.544.786	1.924.068	24,6	1.171.764	1.543.674	31,7
URTEKO METATUA	16.350.323	21.389.005	30,8	13.021.727	19.362.969	48,7
ENERGIAZKO GAIAK	824.655	1.893.827	129,7	2.618.710	5.660.076	116,1
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	15.525.668	19.495.178	25,6	10.403.017	13.702.893	31,7
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	375.798	439.502	17,0	265.336	292.935	10,4
URTEKO METATUA	4.669.826	5.967.276	27,8	2.886.407	3.714.302	28,7
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	756.689	991.303	31,0	1.046.002	1.521.043	45,4
URTEKO METATUA	6.575.159	8.889.135	35,2	7.234.686	11.856.999	63,9
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	565.288	739.631	30,8	333.721	424.099	27,1
URTEKO METATUA	5.105.338	6.532.594	28,0	2.900.634	3.791.669	30,7

Data 2022ko Urriaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Araban, esportazioak honako hauetan kontzentratu dira: “Garraio-materiala” (guztizkoaren % 35,5), % 0,2ko jaitsierarekin (155,9 milioi esportatu, guztira); “Metalak eta haren manufakturak” (urte arteko % 79,1eko igoera), eta “Plastikoak, kautxua eta haien manufakturak” (% 15,5). Hiru “arantzel-sekzio” horiek hil honetan ere pisu espezifiko handienekoak izan dira.

Gipuzkoan, gora egin dute hiru arantzel-partida nagusien salmentek: “Metalak eta haien manufakturak” (% 38,2), “Papera eta haren manufakturak” (% 43,6) eta “Garraio-materiala” (% 71,9).

Bizkaiaren kasuan, hazi egin dira “Metalak eta haien manufakturak” partiden esportazioak (% 11,0), bai eta “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” (% 15,2) eta “Produktu mineralak eta energetikoak” (% 60,3) partidenak ere. Partida esanguratsuenen artean, behera egin dute “Produktu kimikoak” (–% 25,6) eta “Garraio-materialak” (–% 2,1). Hilabete honetan, esanguratsua da “Koipe eta olioak” esportazioen igoera handia (% 536,6).

Jatorri- eta helmuga-herrialdeak, 2022ko abuztua

2022ko abuztuan, bost herrialdek (Frantzia, Alemania, Herbehereak, Belgika eta Erresuma Batua) eratu dute Euskal AERen bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 52,2 hartzen dute (1.132,9 milioi). Haietako lau EB27koak dira; entitate horri % 67,9 dagokio.

Frantziara eginiko esportazio kopurua % 14,7 hazi da, Alemaniara eginikoa % 21,5, Herbehereetara eginikoa % 69,1, Belgikara eginikoa % 104,6 eta Erresuma Batuara eginikoa % 17,5; era berean, Italiara (% 7,6), Portugalera (% 47,3) eta Suediara (% 196,0) eginikoak ere areagotu dira. Europatik kanpora, Estatu Batuetakoak handitu dira (% 6,2) eta txikitu Txinakoak (–% 26,4) eta Errusiakoak (–% 59,6).

Gure inportazioen % 46,7 EB27tik etorri dira. Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Irlanda nabarmentzen da gehien, % 165,1eko urte arteko hazkuntza izan baitu, eta, ondoren, Suedia (% 49,4), Frantzia (% 40,1), Herbehereak (% 30,7), Alemania (% 24,0) eta Italia (% 8,5). Hazkuntza-tasa positiboa da EB eratzen duten herrialdeetako 21en aldean. Erresuma Batuan, % 34,3ko atzerapena egon da. Munduko gainerako herrialdeak aztertuta ikusten da Txinan jatorria duten inportazioek ere gora egin dutela (% 30,6 eta 177,9 milioi inportatu), bai eta beste herrialde batzuetan jatorria dutenak ere, besteak beste: Mexiko (% 28,4 eta 127,5 milioi), Angola (% 112,4 eta 102,4 milioi) eta Estatu Batuak (% 520,3 eta 267,3 milioi). Azken hiru horiek energetikoak dira. Errusiaren kasuan, % 98,9ko atzerakada egon da; 2021eko abuztuan 194,7 milioi izatetik 2022ko hil berean 2,2 milioi izatera igaro da; horiek guztiak “ez-energetikoak” izan dira.

Gure inportazio energetikoak honela banatu dira: 344 milioi Amerikakoak (% 49,5) eta, haietatik, 220,5 milioi Estatu Batuetakoak; 183 milioi Asiakoak (% 26,4), 102 milioi Afrikakoak (% 14,8) eta 65 milioi Europakoak (% 9,3).

Merkaturatutako produktuak, 2022ko abuztua

Xehetasunak ikusteko, 2022ko abuztuan ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 38,8 kontzentratu dutela; baterako balioa 842 milioi eurokoa izan da.

Nabarmentzekoak dira, talde horren barruan, “Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak” partidaren igoera (% 1.720,0 eta aurreko urteko hil berean baino 47,2 milioi gehiago), eta, espektroa 25 partida nabarmenetara zabaltzen badugu, nabarmentzekoa da “Animalien edo landareen koipeak eta olioak, erabilera tekniko industrialetara bideratuak” partida, ez esportatzetik 21,5 milioi esportatutara egin baitu, bai eta “Soja-olioa” ere (% 2.201,2 eta 17,9 milioi).

Nabarmentzekoak dira, erabat, honako hauen igoerak: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako” (ez esportatzetik 78,6 milioi esportatutara egin baitu) eta “Petrolioaren olio finduak” (% 72,8 eta aurreko urteko hil berean baino 95,5 milioi gehiago).

Esanguratsuak dira, era berean, besteak beste, honako partida hauetako hazkuntza-tasak: “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (% 87,7 eta 38 milioi esportatu), “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak*” (% 54,9 eta 48,7 milioi) eta “*Ibilgailuen zati eta osagarriak*” (% 24,0 eta 165,9 milioi).

Esportatutako hogeita bost partida nagusietatik, bik baino ez dituzte izan hazkuntza-tasa negatiboak: “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailuak*” (–% 13,8 eta 45,1 milioi esportatu) eta “*Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako*” (–% 36,7 eta 28,9 milioi).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.697.775	2.170.436	100,0	27,8
Petrolioaren olio finduak	131.200	226.683	10,4	72,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	133.801	165.947	7,6	24,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	77.072	85.941	4,0	11,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueterako	0	78.558	3,6	-
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	59.678	61.032	2,8	2,3
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	2.744	49.944	2,3	1.720,0
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	31.433	48.676	2,2	54,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	52.381	45.140	2,1	-13,8
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	24.712	41.945	1,9	69,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	20.286	38.084	1,8	87,7
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	23.680	32.078	1,5	35,5
Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	45.621	28.857	1,3	-36,7
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	19.851	28.170	1,3	41,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	15.983	24.462	1,1	53,0
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	0	21.452	1,0	-
Kraft papera eta kartoia, iztukatu edo estali gabea, bobina edo orritan	14.214	20.915	1,0	47,1
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	17.019	20.490	0,9	20,4
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	19.889	20.486	0,9	3,0
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatutako makinak	15.484	19.612	0,9	26,7
Soja-olioa	780	17.942	0,8	2.201,2
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	17.192	17.773	0,8	3,4
Metal arruntzeko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	13.720	17.446	0,8	27,2
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	10.928	17.019	0,8	55,7
Ardoa, mahats freskoarena	12.298	16.851	0,8	37,0
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	8.760	16.177	0,7	84,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Urriaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, garrantzitsuenak, “*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*” (guztizkoaren % 17,9) partidak, % 28,6ko hazkuntza izan du, 2021eko hil berean baino 89 milioi gehiago, 400,7 milioiko guztizko erosketetan, honela banatuta:

176,2 milioi Kazajstangoak, 122,1 milioi Mexikokoak, 102,4 milioi Angolakoak eta 47 mila euro Alemaniakoak.

Joera positibo hori arantzel-partida nagusi gehienek izan dute, eta haien artean nabarmentzen da “*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*” partidaren hazkuntza (% 326,8 eta 220,8 milioi inportatu), ia guztia “*Gas naturala*” (% 99,9), hil honetan Estatu Batuetakoa (220,5 milioi). Era berean, honako hauen igoerak ere nabarmentzen dira: “*Ekilore-olioa*” (% 220,6 eta 19 milioi), “*Elikagai eta edarien industrietan erabilitako gai usaintsuen nahasketak*” (% 186,9 eta 63,3 milioi), “*Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk*” (% 176,7 eta 82 milioi) eta “*Landu gabeko aluminioa*” (% 60,6 eta 32 milioi), garrantzitsuenen artean.

ARABA. Esportazioak 2022ko abuztuan

Araban, esportazioek % 17 egin dute gora, neurri handi batean hil honetan “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” partidak izan duen igoera handiagatik (% 268,0 eta 34,6 milioi esportatu, aurreko urteko hil berean baino 25,2 milioi gehiago). Esportatzeko ahalegin horretan honako hauek ere parte hartu dute: “*Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak*” (9,5 milioi esportatu), “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 4,9 eta 59,2 milioi esportatu), “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 22,1 eta 36,9 milioi) eta “*Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak*” (% 50,2 eta 17,8 milioi), besteak beste.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	375.798	439.502	100,0	17,0
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	56.418	59.193	13,5	4,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	49.020	45.023	10,2	-8,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	30.206	36.886	8,4	22,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	39.268	36.877	8,4	-6,1
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	9.413	34.637	7,9	268,0
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	11.825	17.767	4,0	50,2
Ardoa, mahats freskoarena	11.244	14.609	3,3	29,9
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak	0	9.461	2,2	-
Aluminiozko manufakturrak: burdin sareak, puntak, torlojuak, azkoinak, errematxeak, larakoak eta antzeko gaiak	5.952	8.621	2,0	44,8
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	524	7.128	1,6	1.259,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Urriaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatizaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2022ko abuztuan

Bizkaiko lurralde historikotik eginiko esportazioek % 31,0 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta. Hamar partida nagusietatik, kopuru osoaren % 52,7k, hazkuntza-tasa handienak izan dituztenak, honako hauek dira: “*Petrolioaren olio finduak*” (% 74,2 eta 225,3 milioi esportatu), “*Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak*” (% 2.261,3 eta 47,9 milioi esportatu), “*Soja-olioa*” (% 2.201,2 eta 17,9 milioi), “*0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak*” (% 72,2 eta 40,4 milioi), “*Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne*” (% 65,1 eta 17 milioi) eta “*Animalien edo landareen koipeak eta olioak, erabilera tekniko industrialetara bideratuak*” (21,5 milioi esportatu).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	756.689	991.303	100,0	31,0
Petroloaren olio finduak	129.311	225.269	22,7	74,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	47.909	67.902	6,8	41,7
Kautxuzko pneumatiko berriak	46.515	48.516	4,9	4,3
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	2.029	47.917	4,8	2.261,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	23.457	40.392	4,1	72,2
Erabilera tekniko industrialetarako kolpeak eta olioak (animalia- edo landare-)	0	21.451	2,2	-
Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	17.349	18.868	1,9	8,8
Soja-olioa	780	17.942	1,8	2.201,2
Kobre findu gabe; finitze elektrolitikorako kobre anodoak	17.189	17.773	1,8	3,4
Turborreaktoreak, turbopropulsaizaleak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	10.275	16.964	1,7	65,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Urriaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2022ko abuztuan

Gipuzkoako esportazioek % 30,8 egin dute gora, eta, haien partida nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: *“Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaizaleetarako”*, guztira 78,6 milioi esportatu; kopuru horretatik, 24,5 milioi Suediari, 23,1 milioi Herbehereei, 17,2 milioi Erresuma Batuari, 11 milioi Belgikari eta 2,7 milioi Norvegiari. Bestalde, *“Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak”* ere nabarmentzen da (% 2.115,2 eta 14,7 milioi esportatu); kopuru horretatik, 12,1 milioi Bulgariari dagozkio, 1,3 milioi Israeli eta 0,9 milioi Erresuma Batuari. Eta *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”* (% 60,1 eta 46,3 milioi) eta *“Ibilgailuen zati eta osagarriak”* (% 31,2 eta 61,2 milioi) ere nabarmentzen dira.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	565.288	739.631	100,0	30,8
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaizaleetarako	0	78.558	10,6	-
Automobilentzako zati eta osagarriak	46.624	61.168	8,3	31,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	28.929	46.303	6,3	60,1
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatutako makinak	14.610	19.282	2,6	32,0
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	33.847	18.831	2,5	-44,4
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	13.056	16.645	2,3	27,5
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	665	14.738	2,0	2.115,2
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	7.964	14.240	1,9	78,8
Burdina edo altzairuzko gainerako enbusturak	11.665	14.131	1,9	21,1
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	6.348	13.904	1,9	119,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Urriaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2022KO METATUA (URTARRILA-ABUZTUA): kanpoko saldoak 2.026 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 110,5ekoa da

2022ko lehen zortzi hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 30,8ko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 5.038,7 milioi euro gehiago. Aldi horretan, zenbateko esportatzailea

21.389 milioikoa izan da, eta kopuru horri Bizkaiak egin dio ekarpenik handiena, 8.889,1 milioikoa (guztizkoaren % 41,6), gero Gipuzkoak (6.532,6 milioi) eta, ondoren, Arabak (5.967,3 milioi).

Bizkaiko esportazioek, gainera, urte arteko hazkuntza handiena izan dute (% 35,2), 2021ean baino 2.314 milioi gehiago. Araban, hazkuntza % 27,8koa izan da (1.297,5 milioi gehiago) eta, Gipuzkoan, % 28,0koa (1.427,3 milioi gehiago).

Esportatutako produktu mota kontuan hartuta, egiaztatu da esportazioek hazkuntzak izan dituztela, bai "Produktu energetikoenek" (1.069,2 milioi gehiago), bai "Produktu ez-energetikoenek" (3.969,5 milioi gehiago 2021eko aldi bereko metatua baino).

Gehien saldu diren hamar produktuek (arantzel-partidak) guztizkoaren % 40,8 kontzentratzen dute, 8.729,6 milioiko zenbatekoarekin. Esportazioen rankingeko lehen 31 posizioek, haietako batek izan ezik, hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Abuztua 2022

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	21.389.005
1	2710	Petrolioaren olio finduak	1.746.890
2	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.542.756
3	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.388.869
4	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.138.442
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	828.157
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	582.762
7	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	426.286
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	399.810
9	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	369.691
10	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuak	305.917
11	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	303.011
12	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	289.812
13	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	257.299
14	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	246.604
15	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	220.702
16	1518	Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	205.464
17	7601	Landu gabeko aluminioa	183.129
18	8483	Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak....	179.895
19	7308	Xaflen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	179.146
20	8544	Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	168.902
21	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	167.623
22	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	167.492
23	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	162.698
24	8301	Metal arruntezko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	156.589
25	4804	Kraft papera eta kartoia, iztuku edo estali gabea, bobina edo orritan	153.564

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Urriaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

“Petrolioaren olio finduak” Euskal AEko esportazio-bolumen handiena duen partida da (1.746,9 milioi esportatu eta % 149,1eko hazkuntza-tasa).

Gehien hazi diren produktuen artean honako hauek nabarmendu behar dira: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako” (% 800,2 eta 305,9 milioi euro esportatu) eta “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 116,3 eta 426,3 milioi). Zerrenda horretako gainerako produktuen kasuan, nabarmentzeko moduko aurrerapenak “10 pertsona baino gutxiagoko turismoer” dagokien % 13,5en (1.542,8 milioi esportatu) eta “0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafra eta tiren” % 56,0ren (369,7 milioi) artean daude.

Kontuan hartzeko moduko beste hazkuntza batzuk honako hauek dira: “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”, “Ibilgailuen zati eta osagarriak”, “Salgaiak garraiatzeko automobilak” eta “Kautxuzko pneumatiko berriak”; % 51,2ko, % 20,7ko, % 20,3ko eta % 19,6ko aldakuntza positiboak dituzte, hurrenez hurren.


Frantzia izan da esportazioen helmugako herrialdeen sailkapeneko buru (3.306,5 milioi), kontuan hartu den aldian, eta, ondoren, oso gertutik, Alemania (3.269,1 milioi) eta, urrunago, Herbehereak (1.468 milioi), Estatu Batuak (1.370,7 milioi) eta Erresuma Batua (1.333,8 milioi); hala, bost herrialdeen artean, esportazioen % 55,6 hartzen da.

Euskal AErako **inportazioen** metatua 19.363 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2021eko aldi berean erregistratutakoa baino 6.341,2 milioi handiagoa dela ikusten dugu. % 48,7ko gorakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (11.857 milioi balioa duten inportazioak ditu) % 63,9ko gorakada egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 4.622,3 milioi gehiago. Araban ere inportazioek aurrera egin dute, % 28,7, 827,9 milioi euro gehiago, eta, Gipuzkoan, % 30,7ko igoera izan dute eta 891 milioi euro gehiago; inportatutakoaren balioa 3.714,3 eta 3.791,7 milioi euro izanda, hurrenez hurren, bi lurralde horietan.

“Produktu energetikoen” inportazioak % 116,1 egin du gora, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta “Produktu ez-energetikoenak”, % 31,7.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2022ko lehen zortzi hiletan, 2.026 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 110,5ekoa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62